**IDAZKI ANONIMOA: 1-2025**

**ERABAKIA, 2026ko UZTAILAREN 6koa, "ERTZAIN ANONIMOAK" IZENPEAN BATZORDEARI BIDALITAKO IDAZKIA ARTXIBATZEKOA. HAREN BITARTEZ, LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETA BATEKO ZENBAIT IRREGULARTASUN SALATU NAHI ZITUZTEN, ERTZAINTZAREN ZAINTZA ETA ERRESKATE UNITATEKO URETAKO ATALAREN BARRUAN.**

I. AURREKARIAK

1. 2025eko abenduaren 9an, mezu anonimoa jaso genuen Batzordearen helbide elektronikoan eta fitxategi bat zekarren erantsita. Horren goiburuan "Ertzain Anonimoak" aipamena ageri zen.

2. Fitxategi horretan, zenbait ertzainen "jardunbide txarrak" salatu nahi zituzten, Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateko Uretako Ataleko lanpostu jakin batzuk betetzeko lehiaketa bati dagokionez; izan ere, bidegabekeria larritzat jotzen zituzten eta, horien aburuz, erakundearen izen ona kalte zezaketen. Salaketarekin batera, Barne Arazoetako komisarioari zuzendutako mezu elektronikoaren kopia igorri zuten eta horretan ere antzeko jokabidea izatea leporatu zieten prozeduraren antolatzaileei.

II. KONTUAN HARTZEKOAK

Lehenengoa. - Batzorde honek esku hartzeko eskubidea dauka soilik beherago zehaztutako egoera bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 19.1 artikuluan aitortutakoarekin bat eta 17.2 artikuluaren a) eta b) letretan zehaztutakoaren arabera (lege hori uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen). Hona hemen aipatutako balizkoak:

**ESCRITO ANÓNIMO 1-2025**

**ACUERDO DE 06 DE JULIO DE 2026 DE ARCHIVO DEL ESCRITO DIRIGIDO A LA COMISIÓN POR "AGENTES DE LA ERTZAINTZA ANÓNIMOS" RELATIVO A UNA DENUNCIA SOBRE CIERTAS IRREGULARIDADES EN UN CONCURSO DE PROVISIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DE LA SECCIÓN ACUÁTICA DE LA UNIDAD DE VIGILANCIA Y RESCATE DE LA ERTZAINTZA**

I. ANTECEDENTES

1. El 9 de diciembre de 2025 se recibió en la dirección de correo electrónico de la Comisión un mensaje anónimo acompañado de un archivo en cuyo encabezado figura la mención a "Agentes de la Ertzaintza Anónimos".

2. En dicho archivo, se denunciaban "malas praxis" de miembros de la Ertzaintza con respecto a un concurso para la provisión de determinados puestos de trabajo de la Sección Acuática de la Unidad de Vigilancia y Rescate de la Ertzaintza, que consideraban graves y empañaban el prestigio de la Institución. A la denuncia se unía copia de un correo electrónico dirigido al Comisario de Asuntos Internos que contenía análogas acusaciones.

II. CONSIDERACIONES

Primera. - En virtud del artículo, 19.1 de la Ley de Policía del País Vasco, aprobada mediante el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio (LPPV), esta Comisión solo puede intervenir en los supuestos que contemplan las letras a) y b) del artículo 17.2 LPPV. Es decir:

a) "segurtasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularrak, dagokion Udal Agintaritzak edo Arartekoak eskatuta", honako hau ikertzeko: "Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren barruan izandako jardunbide edo praktika jakin batzuk, horien inguruan eskubideen urraketei buruzko kexak jaso badira edo herritarren konfiantzan izan dezaketen eraginari buruzko kezka handia zabaldu denean".

a) "a solicitud del titular del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de seguridad, de la autoridad municipal correspondiente o del Ararteko", para investigar "cualquier conducta o práctica en el seno de la Ertzaintza o Policía local respectivamente, sobre la que se hayan recibido quejas sobre vulneración de derechos u otras en las que exista seria preocupación sobre el impacto en la confianza de la ciudadanía."

b) ofizioz aztertuko dituzte "hildako edo larri zauritutakoei lotutako gertakariak, bizilagun horiek poliziaren esku-hartze edo operatibo baten baitan edo poliziaren zaintzapean egon badira. Ertzaintzak edo Udaltzaingoak berehala eman beharko diote horren berri batzordeari. "

b) de oficio, para estudiar "aquellos incidentes en los que en el contexto de una intervención u operativo policial o durante la custodia policial se hubiera producido el fallecimiento o lesiones graves de una persona. La Ertzaintza o el Cuerpo de Policía local tendrán la obligación de comunicar tal circunstancia de inmediato a la comisión."

Bigarrena. - Salatzeko idazkia ez zaigu heldu Batzordeak esku hartzea eskatzeko (EAEPLren 17.2 a) artikuluak xedatutakoaren arabera) legitimatuta dauden organoetako baten bitartez (lege beraren 19.1 artikuluan zehaztutakoak). Bestalde, aipatutako egitateak ere ez datoz bat EAEPLren 17.2 b) artikuluan aurreikusitako kasuekin.

Segunda. - El escrito de denuncia no proviene de ninguno de los órganos legitimados en el artículo 19.1 LPPV para instar la intervención de la Comisión conforme al artículo 17.2 a) LPPV. Por otra parte, los hechos a los que se refiere, tampoco, se corresponden con los supuestos previstos en el artículo 17. 2 b) LPPV.

Hirugarrena. - Azkenik, mezua anonimoa denez gero, ezinezkoa da erabaki hau hartzaile jakin bati helaraztea.

Tercera. - Finalmente, el carácter anónimo del mensaje imposibilita la notificación de este Acuerdo a un destinatario concreto.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak

Por todo lo cual, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea
Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

**EBATZI DU**

**Lehenengoa:** Ez onartzea "Ertzain anonimoak" izenpean 2025eko abenduaren 9an Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen helbide elektronikora bidalitako idazkia. Horretan, Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateko Uretako Atalari atxikitako lanpostuak betetzeko barne-lehiaketa bateko probei buruz zenbait ertzainek erabilitako jardunbide txarra salatu zuten.

**Bigarrena:** Artxibatzea, anonimoa delako.

**Hirugarrena:** Erabaki hau Segurtasun Sailari jakinaraztea, posta elektronikoz jasotako fitxategia erantsita.

Bilbon, 2026ko uztailaren 06an

**A C U E R D A**

**Primero:** Inadmitir el escrito de 9 de diciembre de 2025, enviado a la dirección de correo electrónico de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco por unos "Agentes de la Ertzaintza Anónimos," para denunciar la mala praxis de agentes de la Ertzaintza sobre unas pruebas de un concurso interno de provisión de puestos de trabajo en la Sección Acuática de la Unidad de Vigilancia y Rescate de la Ertzaintza.

**Segundo:** Proceder a su archivo, debido a su carácter anónimo.

**Tercero:** Comunicar este Acuerdo al Departamento de Seguridad, adjuntando el archivo recibido por correo electrónico.

En Bilbao a 06 de Julio de 2026.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeburua

El Presidente de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA / COMISION DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICIA DEL PAIS VASCO

Firmado digitalmente por EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA / COMISION DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICIA DEL PAIS VASCO
Fecha: 2026.07.06 09:27:16 +02'00'

Enrique Lucas Murillo de la Cueva

Harremanetarako helbidea/Dirección de contacto: polizia-gardentasuna@euskadi.eus